

LEZO

# AGENDA *Kulturala*

2020 // URTARRILA-OTSAILA-MARTXOA-APIRILA-MAIATZA-EKAINA



Lezoko  
Unibertsitateko  
Udala



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura, Gaitasun, Gazteritza  
eta Kirol Departamentua



ORAIN  
KULTURA



SAREA  
EUSKADIKO  
ANTZEKI SAREA  
RED VASCA  
DE TEATROS

# HAUR ZINEMA //////////////////////////////////////

Gezala Auditoriumean, larunbatetan, 17:00etan

CINE INFANTIL




URTARRILAK

**18**

Larunbata  
17:00

## PIRATA ARRATOIOA

Kontuz pirata arratoiarekin! Bide-lapurren artean gozozaleena... Bere zaldiaren gainean, bidean aurkitzen dituen bidaia-ri guztien janaria lapurtzen du, bera baino maltzurragoa den norbaitekin topo egiten duen arte. Julia Donaldsonek sortutako primerako istorio dibertigarria.




OTSAILAK

**8**

Larunbata  
17:00

## PLOEY

Árni Ásgeirsson zuzendariaren animazio film jostagarri eta hunkigarri honek txori gazte baten istorio ederra kontatzen du. Txikientzako sortua izan bazen ere, familia giroan gozatzeko aproposa da txori maitagarri honen abentura.



MARTXOAK

**14**

Larunbata  
17:00

## UDARE ERRALDOIAREN ISTORIO HARRIGARRIA

Herri txiki zoragarria da Eguzki-erri, eta bertan bi lagun handi bizi dira: Sebastian elefantea eta Mitxi katemea. Azkenaldian, ordea, oso atsekabetuta daude Sebastian, Mitxi eta beste herritar ia guztiak, beren alkate maitea, Jeronimo Braulio Seberin Olsen -eurek maitekiri "JB" esaten diotena- desagertu egin baita.



APIRILAK

**25**

Larunbata  
17:00

## PLAYMOBIL

2019ko Lino DiSalvo estatubatuar zinema zuzendariaren marrazki bizidunetako filma da. Marla abentura epiko batean murgilduko da bere anaia txikia Charlie aurkitzeko. Charlie, ordea, errealitatetik desagertu eta Playmobilen mundu magikoan sartu da. Horregatik, Marliak mundu horretara bidaiatu beharko du.



MAIATZAK

**16**

Larunbata  
17:00

## MR. LINK: JATORRI GALDUA

Lionel Frost ikertzaileak mitoak eta munstroak ditu ikergai, eta izaki arraro eta maitagarri bat aurkituko du, bere espezieko azkena, eta Mr. Link izena jarriko dio. Frostekin batera, Mr. Link bidaia zoragarri bezain dibertigarri bati ekingo dio duela asko galdutako bere lehengusu Yetiak aurkitzeko asmoz.

# ZINEMA FAMILIAN //

Gezala Auditoriumean, larunbatetan, 19:30ean

CINE FAMILIAR



URTARRILAK

18

Larunbata  
19:30

## AGUR ETXEBESTE!

Patrizio Etxebeste (Ramon Agirre) alkatetza uztera behartuta ikusten da. Udaleko agintea ez galtzeko, Maria Luisa (Elena Irureta) bere emaztea herriko lehen emakumezko alkatea izendatzen du. Maria Luisak oso serio hartuko du lan berria eta udaletxeko funtzionamendua goitik behera aldatuko du, Patriziorekin duen harremana eta etxeko giroa hankaz gora jarriz.



OTSAILAK

8

Larunbata  
19:30

## GAZAKO ZERRIA

**LE COCHON DE GAZA.** Jatorrizko bertsioan azpiztituluekin. Ekaitzaren ostean, Jafarrek, Gazako arrantzale palestinarrek, zerri bat topatuko du bere sarean, itsasontziren batetik erorita segur aski. Animalia saltzen saiatuko da bere egoera ekonomikoa kaskarra hobetu asmoz. Horretarako, Jafar gaixoa abentura harrigarri eta ez oso gomendagarrian murgilduko da.

# ERAKUSKETAK //////

Kultura aretoan, 11:00-13:30 / 17:00-19:30

MARTXOAK


2-8



**JAIZKIBEL N2000**

**ULIA JAIZKIBEL**

**ITSAS BABESA**



**DESKARGATU  
LEZOKO  
APP-A**

*Agenda osoa eta  
beste gauza ugari  
Kulturako APPan*

**DESCARGATE LA  
APP DE LEZO**



*Toda la agenda y muchas mas  
en la APP de Cultura*



# HAUR ANTZERKIA //////////////////////////////////////

Gezala Auditoriumean, ostiraletan, 17:15ean



URTARRILAK

5

Igandea,  
12:00

## BIZI DANTZA Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Katxiporreta Koop. EUSKAL HERRIA. SARRERA 8€

Lurra sortu zenetik, jirabiraka dantzari hasi zen bere buruaren eta eguzkiaren inguruan. Animaliak ere sortu ziren unetik bertatik, dantzari dabilta lurraren inguruan. Geu ere hitzaren jabe izan aurretik dantzatzeko gara, zaldiak, izurdeak eta tximeletak bezala. Pozak eta tristurak azaltzeko dantzatzeko gara. Zatoz gurekin dantzara!



URTARRILAK

10

Ostirala  
17:15,  
Gezala  
Auditoriuma

## AHATETXO ITSUSIA!

La sombríta. ANDALUZIA. TESTURIK GABE. SARRERA 2€

ITZAL-ANTZERKIA. Hans Christian Andersen obraren bertso honek, berea ez den kabi batean istripuz jaiotzen den beltzarga baten istorioa kontatzen digu. Hasieratik, ahate txo "itsusia" baserriko beste abereek baztertu egingo dute, Artisau-teknika eta konplexuen bitartez, gainditze pertsonalaren inguruko istorio bat ikusiko dugu.



URTARRILAK

24

Ostirala  
17:15,  
Gezala  
Auditoriuma

## MARI ETA GAILETA FABRIKA

Eidabe Ekimen Kulturalak. EUSKAL HERRIA. SARRERA 2€

Lukak labean egindako gailetak prestatu nahi dizkio amamari, bere etxean egun batzuk geratuko direla aprobetxatuz. Gozoki gozo horiekin, etxetik kanpo erosoago sentitzen lagunduko diola uste du. Baina gaileten oroitzapenek hain gozoa ez den iraganera eramango dute amama, irenstea kostatuko zaion gogorapenera.



OTSAILAK

14

Ostirala  
17:15,  
Gezala  
Auditoriuma

## EBOOK, LIBURUAREN BILAKAERA

Spasmo Teatro. GAZTELA LEON. SARRERA 2€

Liburuaren bilakaeraren errepaso egingo dute 60 minututako ikuskizun honetan. Guzti hau ironia, efektu bisual onenak eta batez ere, Spasmo taldearen keinu bidezko humore zoragarriarekin onduta egongo da.



MARTXOAK

13

**KASKAROT**

Atx teatroa. EUSKAL HERRIA. SARRERA 2€

Ostirala  
17:15,  
Gezala  
Auditoriuma

Aner gizarte distopiko batean bizi da, non dantzatzea debekatuta dagoen. Anerri izugarri gustatzen zaio dantza egitea eta horrek arazo larriak sortzen dizkio. Kaskarot Anerren "alter egoa" da. Bere ingenio eta zentzuaren bidez, Anerri erakutsiko dio bere egoerari buelta ematen eta arauen aurrean bere adierazpen askatasuna lehenesten.



APIRILAK


24

**HANSEL ETA GRETEL**

Borobil teatroa. EUSKAL HERRIA. SARRERA 2€

Ostirala  
17:15,  
Gezala  
Auditoriuma

Grimm anaien Hansel eta Gretel klasikoaren bertsio librekoa da. Anderrek eta Gretak baso bat zeharkatu behar dute bere aitari laguntzeko. Halako batean arbola batek ematen dituen goxokiak jan eta lurra neba-arrebak irentsiko ditu; hor Amoniorekin egingo dute topo...



MAIATZAK

8

**SAFARI**

La Baldufa. KATALUNIA. SARRERA 2€

Ostirala  
17:15,  
Gezala  
Auditoriuma

*Lío en la granja* antzezlanaren bi protagonistak, Piñote eta Calabacín, herrira itzuli dira, eta sabanan bete-betean harrapatu dituen gataska azalduko digute. Hara joan dira lehoi bat modu misteriotsuan desagertu dela entzun dutelako. Beren ikerketa-lanetan, hainbati eskatuko diote laguntza: jirafari, tximinoari, elefanteari, krokodiloari...



MAIATZAK

22

**OILAR BAT DAGO ZURE TEILATUAN**

Titirigui. MADRIL. SARRERA 2€

Ostirala  
17:15,  
Gezala  
Auditoriuma

2016KO TOLOSAKO NAZIOARTEKO TXOTXONGILO JAIALDIAN HAURRENTZAKO IKUSKIZUN ONENAREN SARIA. Oilar bat ezin mugiturik dago hiriko eraikin bateko teilatuan. Beheko bizilaguna jakin-minez dago, oilarraren kantuak behiarena dirudi eta. Horren zergatia galdetuko dio oilarrari, eta hortxe hasiko zaigu istorio zelebrekoa...

# DOKUMENTALAK //

Gezala Auditoriumean, 19:30ean

DOCUMENTALES



OTSAILAK

13

Osteguna  
19:30,  
Gezala  
Auditoriuma

## LA VOZ DE IÑAKI

DOKUMENTALA + TXARLA

2008an Annapurnan zendu zen mendizaleak bukatu gabe utzi zituen hainbat proiektu Himalayan. Iñaki Otxoa de Olzaren ametsak gauzatzeko jarraitzeko asmoz sortu zuten mendizalearen izena daraman fundazioa.

LEZO-JAIZKIBEL MENDI LASTERKETAK antolatuta



OTSAILAK

14

Ostirala  
19:30,  
Gezala  
Auditoriuma

## OIHANA AZKORBEBEITIA

HITZALDIA + LIBURU AURKEZPENA

Mendi lasterketetan goi mailan dabilen Oihana Azkorbebeitiakiaz argitaratu zuen liburuaren aurkezpena egingo du: Mendiaren altzoan.

LEZO-JAIZKIBEL MENDI LASTERKETAK antolatuta



MARTXOAK

14

Larunbata  
19:30,  
Gezala  
Auditoriuma

## KABI BILUZIAK

Virginia Senosiainek eta Juan Luis Napalek ekoitzi eta zuzendutako dokumental honek INDARKERIA MATXISTAren errealitate latza ezagutzera eman nahi du. Fikzioa, errealitatea, jendearen parte hartzea eta indarkeria matxista pairatu duten emakumeen testigantzak entzun eta ikus ditzakegu.



APIRILAK

25

Larunbata  
19:30,  
Gezala  
Auditoriuma

## EUROPA TRANSIT

Europa Transit autobusak Europako hamar hiritara egingo du bidaia. Hiri horiek gerrak eta gatazkak bizi izan dituztenak dira; zehazki, honako hauek: Ceuta, Belfast, Dresden, Wrocław, Kaliningrado, Pristina, Sarajevo, Plovdiv, Istanbul eta Pafos. Helburua da europar nortasunari buruzko mosaiko digital bat lortzea.



MAIATZAK

16

Larunbata  
19:30,  
Gezala  
Auditoriuma

## EZ, ESKERRIK ASKO (GLADYSEN LEIHOA)

1979ko ekainaren 3an, guardia zibil baten tiroak Gladys del Estal gaztea hil zuen Tuteran. Mugimendu antinuklearrak aldarrikapen festa deituta zuen, Harrisburgeko (AEB) zentral nuklearrean izandako istripu larriaren ondoren. Dokumentalak 60 minutu inguruan azalduko du nor zen 23 urteko neska hura, eta nolakoak izan ziren gertakariak.

# LITERATUR SOLASALDIAK //

Asteazkenetan, 18:15ean, **Udal liburutegian** CHARLAS LITERARIAS



URTARRILAK  
**28**

GAZT. / CAST

## LA DEPENDIENTA

SAYAKA MURATA

Dinamizado por Javier Mina



OTSAILAK  
**26**

## PERLA

JOHN STEINBECK

Ane Mayozeke dinamizatuta



MARTXOAK  
**31**

GAZT. / CAST

## ORDESA

MANUEL VILAS

Dinamizado por Javier Mina



APIRILAK  
**29**

## EMAKUME BIBOTEDUNA

XABIER MONTOIA

Ane Mayozeke dinamizatuta



MAIATZAK  
**26**

## EL REGRESO DE REGINALD PERRIN

DAVID NOBBS      GAZT. / CAST

Dinamizado por Javier Mina

# KONTZERTUAK //

MARTXOAK  
**5**


Osteguna  
19:00,  
Gezala



Auditoriuma **ALES DA COSTA (BIOLINA)**  
**JEAN PHILIPPE SYLVESTRE**  
(PIANOA)

MARTXOAK  
**6**

Ostirala  
19:00,  
Gezala  
Auditoriuma



**ROCK CLASSICAL**  
**TRIO**

MARTXOAK  
**29**

Igandea  
19:00,  
Gezala  
Auditoriuma



**GHOST NUMBER &**  
**HIS TYPSIE GYPSIE**

EKAINAK  
**13**

Larunbata  
20:00,  
Goiko  
Plazan



**TENPORA**

# DANTZA

20:00etan igandetan Gezala Auditoriumean. DANZA



URTARRILAK

12

Igandea  
20:00

## GORPUZTU

Doos colectivo. EUSKAL HERRIA. SARRERA 8€

Gorputzu dantza garaikide eta zuzeneko musika ikuskizun bat da. Gorputza zatitan banatuta agertzen dute egileek, askotariko erlijiotako ekintza fisikoak hartu dituzte, eta penitentzia, maitasuna, umiltasuna eta erlazionatutako bestelako kontzeptu batzuk hartu dituzte gorputzetik abiatuta ikerketa bat martxan jartzeko.



URTARRILAK

26

Igandea  
20:00

## LE FUMISTE

Dondavel. FRANTZIA. GAZT. / CAST. SARRERA 8€

Le Fumiste es un homenaje a la memoria, que como una caricia recuerda las vivencias de la infancia y otros momentos de la vida. ¿Cómo se puede atrapar un recuerdo? Los recuerdos son como el humo, aparecen, bailan, te acompañan, cambian de forma y desaparecen.



OTSAILAK

2

Igandea  
20:00

## ENE BA!!

Txalo produkzioak. EUSKAL HERRIA. SARRERA 8€

Protagonistak aita izan behar du lehen aldiz. Ospatze aldera, bere arreba eta koinatuaren etxean afalduko du. Aldarte ona izango dute, ume jaio-berriari jarri behar dioten izena aditzera emango duen arte. Egundoko kalapita sortuko du izen berak. Ene bada! Trumoi hotsak eta txinpartak, baina guztia umore ikuspegi batetik atonduta.



OTSAILAK

16

Igandea  
20:00

## MI PADRE ES UN OGR0

La Baldufa. KATALUNIA. GAZT. / CAST. SARRERA 8€

Miguel quiere recuperar la memoria de su padre, un hombre al que todo el mundo llamaba "Ogro". Durante muchísimos años no ha sabido nada sobre él. Ahora en su madurez, recibe la visita de un hombre que ha compartido celda con su padre en la cárcel y lleva una carta para él. De esa manera, descubre la historia no contada.



MARTXOAK

1

Igandea  
20:00

## OXIDO

Pez Limbo. EUSKAL HERRIA. SARRERA 8€

OXIDO, gorputz metalikoetan, kanpokoaren eraginez eta ardura-gabekeriak sortzen den herdoil geruza da. Eragiten uzten zaionean, ondorioak konpondu ezinak bihur daitezke, zulatzera iristeraino. Hiru egoera barregarrik agerian uzten dute pertsonaien herdoildutako giza harremanak, baita bizi diren gizartearen herdoila ere.

# ANTZERKIA

TEATRO **Gezala Auditoriumean,** 20:00etan igandetan



MARTXOAK


**15**

Igandea,  
20:00

## LA ISLA

Histrión Teatro. **ANDALUZIA. GAZT. / CAST. SARRERA 8€**

Ada y Laura se enfrentan esta noche al dolor, a un dolor profundo, a veces, inconfesable, que se ha apoderado de sus vidas y las ha convencido de que no hay posibilidad alguna de escape. O quizá sí. Pero reconocerlo abiertamente puede llevarlas a un rincón demasiado oscuro y solitario. Ese oscuro rincón llamado conciencia.



APIRILAK

**26**

Igandea,  
20:00

## GALTZAILEAK

Txalo produkzioak. **EUSKAL HERRIA. SARRERA 8€**

Manuel eta Sandra adinean aurrera doaz -ia berrogei-, eta gizakiok tenore horretara ailegatuta, gizarteak markatutako baldintzetatik ez dute bat bera ere betetzen: umerik ez, bikoterik ere ez eta diruz urri, etxebizitza bat erosteko aukerarik gabe... Horregatik, euren buruak galtzailatzat dituzte.



MAIATZAK

**10**

Igandea,  
20:00

## FRESA Y CHOCOLATE

Carmen Ávila. **EXTREMADURA GAZT. / CAST. SARRERA 8€**

David es un ingenio estudiante de sociología en la universidad de La Habana. Joven, machista y lleno de prejuicios. Diego, es un artista culto, homosexual, individualista y escéptico, que conoce por casualidad a David y se siente atraído por el estudiante...



MAIATZAK

**24**

Igandea  
20:00

## MUTU

MYRIAM PEREZ CAZABON. **EUSKAL HERRIA. SARRERA 8€**

MUTU isiltasunaz ari zaigu. Hutsik ez dagoen isiltasun trinkoaz... Zenbait unetan hitzak soberan daude, zenbait gertaerek hitzik gabe uzten gaituzte eta beste zenbaitetan ez dago zer esanik... MUTU komunikaziozko hiru atal edo espazio eszenaratzeko saiakera da.



MAIATZAK

**31**

Igandea  
20:00  
Goiko  
Plazan

## MEETING POINT

ERTZA. **EUSKAL HERRIA. DOAN**

Herralde berdinetik, baina elkarren artean urrun dauden bi hirietatik datozen bi gaztek, 8.000 kilometroko "putzua" gurutzatu behar izan dute eta urte batzuk pasatzen utzi. Break Dance-a eta Hip Hop-a bezalako lengoaiak, dantza garaikidetik datorren hirugarren pertsona baten begiradapean, zera berri bat sortzeraino nahasten diren.

# LEZOINU

LESOINU 2020 // TOMAS GARBIZU UDAL

MARTXOAK  
**5** Osteguna  
19:00  
Gezala  
auditoriuma

## KONTZERTUA

ALES DA COSTA (BIOLINA)  
JEAN PHILIPPE SYLVESTRE  
(PIANOA)

---

MARTXOAK  
**21** Larunbata  
12:30  
Aiton Bordatik  
abiatuta

## KANTUJIRA

MARTXOAK  
**28** Larunbata  
19:00  
Kaleetan  
zehar

## BANDA KALEJIRA

TGLUMEKO BANDA

---

MARTXOAK  
**6** Ostirala  
19:00  
Gezala  
auditoriuma

## ROCK CLASSICAL TRIO

JOAQUIN TABOADA,  
IGOR SAENZ ETA IKER  
BENGOETXEA

---

MARTXOAK  
**27** Ostirala  
11:00  
Gezala  
Auditoriuma

## KONTZERTU PEDAGOGIKOA

TGLUME

---

MARTXOAK  
**28** Larunbata  
19:00  
Gezala  
auditoriuma

## ABESBATZEN KONTZERTUA

LESACA (NAFARROA) ETA  
SUTARGI ABESBATZAK

---

MARTXOAK  
**7** Larunbata  
20:00  
Gezala  
auditoriuma

## KONBOEN KONTZERTUA

KOSKORTU

---

MARTXOAK  
**27** Ostirala  
19:00  
Gezala  
auditoriuma

## AKORDEOI KONTZERTUA

LAUHAIZETA AKORDEOI  
TALDEA

---

MARTXOAK  
**29** Igandea  
10:00  
Kaleetan  
zehar

## DIANA

TGLUMEKO TXISTU -TRIKI  
TALDEA

---

**Oharra: Ekitaldietan aldaketak egon daitezke. Kasu hauetan, denboraz jakinaraziko da.**

*Nota: Las actividades pueden verse modificadas, no obstante si se diera el caso, se informará con anticipación.*

# AL MUSIKA ESKOLA //

MARTXOAK

29

Astelehena  
18:00  
Gezala  
auditoriuma

## KONTZERTUA

GHOST NUMBER &  
HIS TIPSY GYPSIES

---

MARTXOAK

30

Igandea  
19:00  
Gezala  
auditoriuma

## KONTZERTUA

TGLUME

---

APIRILAK

1

Asteazkena  
18:00  
Musika  
eskola

## BEATBOX TAILERRA

ORODRETH <BORIS  
BRINGAS>

---

APIRILAK

1

Asteazkena  
19:00  
Gezala  
auditoriuma

## KONBOAK

JAIG, ORDU TXARRA, THE  
BANE, HALF 8

---

APIRILAK

2

Osteguna  
18:00  
Gezala  
auditoriuma

## KONTZERTUA

TGLUME

---

APIRILAK

3

Ostirala  
17:00  
Gezala  
auditoriuma

## KONTAKIZUN MUSIKATUA

APIRILAK

3

Ostirala  
19:30  
Gezala  
auditoriuma

## KONTZERTUA

JAN VAN CHARLES  
GROUP

---

APIRILAK

4

Larunbata  
12:30  
Gezala  
auditoriuma

## GANBARA MUSIKA

EUSKADIKO MUSIKARI  
GAZTEAK

---



# AGENDA

## Kulturala

2020 //  
URTARRILA  
EKAINA

021

### URTARRILAK 5

12:00

BIZI DANTZA

### URTARRILAK 10

17:15

AHATETXO ITSUSIA!

### URTARRILAK 12

20:00

GORPUZTU

### URTARRILAK 18

17:00

PIRATA ARRATOIA

### URTARRILAK 18

19:30

AGUR ETXEBESTE!

### URTARRILAK 24

17:15

MARI ETA GAILETA  
FABRIKA

### URTARRILAK 26

20:00

LE FUMISTE

### URTARRILAK 28

18:15

LA DEPENDIENTA

### OTSAILAK 2

20:00

ENE BA!!

### OTSAILAK 8

17:00

PLOEY

### OTSAILAK 8

19:30

GAZAKO ZERRIA

### OTSAILAK 13

19:30

LA VOZ DE IÑAKI

### OTSAILAK 14

17:15

EBOOK LIBURUAREN  
BILAKAERA

### OTSAILAK 16

20:00

MI PADRE ES UN  
OGRO

### OTSAILAK 13

19:30

OIHANA  
AZKORBEBEITIA

### OTSAILAK 26

18:15

PERLA

### MARTXOAK 1

20:00

OXIDO

### MARTXOAK 5

19:00

KONTZERTUA

### MARTXOAK 5

19:00

ALES DA COSTA  
- JEAN PHILIPPE  
SYLVESTRE

### MARTXOAK 6

19:00

ROCK CLASSICAL  
TRIO

### MARTXOAK 7

20:00

KONBOEN  
KONTZERTUA

### MARTXOAK 13

17:15

KASKAROT

### MARTXOAK 14

17:00

UDARE  
ERRALDOIAREN  
ISTORIO  
HARRIGARRIA

### MARTXOAK 14

19:30

KABI BILUZIAK

### MARTXOAK 15

20:00

LA ISLA

### MARTXOAK 21

12:30

KANTUJIRA

### MARTXOAK 27

11:00

KONTZERTU  
PEDAGOGIKOA

### MARTXOAK 27

19:00

AKORDEOI  
KONTZERTUA

### MARTXOAK 28

19:00

BANDA KALEJIRA

### MARTXOAK 28

19:00

ABESBATZEN  
KONTZERTUA

### MARTXOAK 29

10:00

DIANA

### MARTXOAK 29

19:00

GHOST NUMBER &  
HIS TYSPIE GYPSIE

### MARTXOAK 30

18:00

KONTZERTUA

### MARTXOAK 31

18:15

ORDESA

### APIRILAK 1

18:00

BEATBOX TAILERRA

### APIRILAK 1

19:00

KONBOAK

### APIRILAK 2

18:00

KONTZERTUA

### APIRILAK 3

17:00

KONTAKIZUN  
MUSIKATUA

### APIRILAK 3

19:30

JAN VAN CHARLES  
GROUP

### APIRILAK 4

12:30

GANBARA MUSIKA

### APIRILAK 24

17:15

HANSEL ETA GRETEL

### APIRILAK 25

17:00

PLAYMOBIL

### APIRILAK 25

19:30

EUROPA TRANSIT

### APIRILAK 26

20:00

GALTZAILEAK

### APIRILAK 29

18:15

EMAKUME  
BIBOTEDUNA

### MAIATZAK 8

17:15

SAFARI

### MAIATZAK 10

20:00

FRESA Y CHOCOLATE

### MAIATZAK 16

17:00

MR. LINK: JATORRI  
GALDUA

### MAIATZAK 16

17:00

EZ, ESKERRIK ASKO  
(GLADYSEN LEIHOA)

### MAIATZAK 22

17:15

OILAR BAT DAGO  
ZURE TEILATUAN

### MAIATZAK 24

20:00

MUTU

### MAIATZAK 26

18:15

EL REGRESO DE  
REGINALD PERRIN

### MAIATZAK 31


20:00


MEETING POINT

### EKAINAK 13


20:00


TENPORA


 HAUR IKUSKIZUNA


 HAUR ZINEMA


 ZINEMA FAMILIAN


 DANTZA

 DOKUMENTALAK

 KONTZERTUAK

 LITERATUR  
SOLASALDIA

 LESOINU

 ANTZERKIA